



Otaegi eta Rekondo, Binakako Urrezko Aizkolarien lehian

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Gazteen sailean ari dira zizurkildarra eta leitzarra; asteburuan, ligaxkako bigarren saioan, Joseba Otaegik eskuratu zituen puntuak, Larretxea III.a lagun zuela; igandean jokatuko dute hurrena, Lakuntzan ▶ 7

Herriko animaliek urte ona igaro dezaten, San Antonen bedeinkapena

BERASTEGI ▶ Urteroko ohitura berritu zuten atzo ere San Anton basilizan; mokadutxoak egiteko aprobetxatu zuten herritarrek ▶ 5

ALEGIA ▶

Txintzarri Abesbatza Kultur Elkartearen batzarra

Besteak beste, 2005eko balantzea egingo dute, eta asmo berriak azaldu ▶ 5

BELAUNTZA ▶

Ekintzak ez duela kutsu politikorik dio Sustraiak plataformak

«Sutearekin zerikusirik ez» dutela esan dute; gaur, Udalak deitutako ezohiko batzarra ▶ 6

N. URBIZU



HITZA ▶

Arrakasta handia izan du I. HITZA Marrazki Lehiaketak

Datozen asteotan jasotako marrazki guztiekin erakusketa jarriko dute merkatariak Tolosako Alde Zaharrean



Gazteboek ederki igaro zuten arratsaldea larunbatean eginiko jaialdi-meriendan. JAIONE ASTIBIA

Marrazkigintza bultzatuz



May Colmenero, akademiaren kanpoaldean jarri duen marrazki lehiaketako marrazkiekin eginiko erakusketaren ondoan. I. TERRADILLOS

May Colmenerok urteak daramatza hainbat eta hainbat gaztetxori margotzen erakusten Tolosan duen eskolan. Eta, hain zuzen ere, gaztetxo horietako asko izan dira HITZA marrazki lehiaketan parte hartu dutenak, hark bultzatuta. «Marrazki lehiaketa abian zela ohartu nintzenezan segituan jarri nintzen lanean, eta gure eskola batzuk horretarako baliatu nituen», adierazi du. Bestalde, ikasleek ilusio handiarekin marraztu dutela eta on-

doren egunkarian eurek egin-dakoa ikustea asko gustatu zaiela gehitu du Colmenerok.

Halaber, eskerrak eman nahi ditu ekimen honekin has-teagatik, eta antolatzaileek zori-onduratu nahi ditu, «arteari bultzatutako emateko balio baitute horrelakoek, eta gehiago egin beharko lirateke». Arte irakasleak azaldu duenez, horrelako ekimenetan berriro ere parte hartzeko prest izango da, «ikasleen onerako baitira».

IÑIGO TERRADILLOS

Nola ikusten duzu zure herria? Hori izan da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Tolosako Alde Zaharreko Merkataria eta Ostalaritza elkarten laguntzarekin antolaturiko marrazki lehiaketarako proposaturiko gaia. Abenduaren erdialdean ekin zioten ekimenari eta urtarrilaren 6ra arte 3 eta 12 urte bitarteko gazteboek eginiko marrazki ugari jaso dituzte, 125 inguru.

Eta, hain zuzen, pasa den larunbatean egin zuten marrazki lehiaketan parte hartu zuten gazteboei zuzenduriko festa berezia. Musika alaiturik askaria hartu ahal izan zuten, eta zorte gehien izan zutenek saria eskuetan joan ziren etxera, zozketan irabazle suertatu baitziren. Bertan oparia jasotzerik izan ez zutenek HITZAREN egoitzan (Araba etorbidea, 5. Tolosa) eskuratu ahal izango dute.

Jaialdiko antolatzaileek euren laguntza eskaini duten orori eskerrak eman nahi dizkiote, bereziki Bazar Amiano, Dakaro, Maite goxokiak, Irura okindegia, Altuna harategia, Sukia harategia, La Casa Azul, Ogi Ona, Noor (Korreo kalekoak); Eceiza gozotegia, Shanti Kirolak, Bermudez frutategia, Muñagorri harategia, Kinu, Alejandro

SARITUAK ▶

122 izan dira HITZA marrazki lehiaketan parte hartu duten gazteboak, eta ondorengoak zozketan sarituak:

Oihan Parra	Ikaztegieta, 3 urte
Leyre Lampe	Alegia, 4 urte
Miren Alargunso	Tolosa, 5 urte
Janire Errazkin	Ibarra, 5 urte
Nora Alustiza	Alegia, 5 urte
Leire Santbez	Tolosa, 5 urte
Eneritz Ugartemendia	Leaburu, 6 urte
Jose Luis Rodriguez	Tolosa, 6 urte
Jon Eskisabel	Alegia, 6 urte
Leire Romero	Ibarra, 6 urte
Uxue Puerta	Tolosa, 6 urte
Irabxe Arregi	Tolosa, 7 urte
Jon Eusebi Hidalgo	Tolosa, 7 urte
Nerea Martinez	Tolosa, 7 urte
Jon Luzuriaga	Ikaztegieta, 7 urte
Maidier Aldazabal	Tolosa, 7 urte
Jone Sarasola	Tolosa, 7 urte
Izaro Etxaniz	Tolosa, 8 urte
Asier Arocena	Anoeta, 8 urte
Iñigo Agüero	Ibarra, 8 urte
Joseba Iraola	Tolosa, 8 urte
Inhar Esnaola	Berastegi, 8 urte
Iñigo Puerta	Tolosa, 8 urte
Maria Prada	Tolosa, 8 urte
Raquel Mateos	Ibarra, 8 urte
Oier Mitxelena	Tolosa, 9 urte
Jorge Gomez	Tolosa, 9 urte
Sara Moreno	Tolosa, 9 urte
Ibai Esnaola	Berastegi, 10 urte
Amaia Garmendia	Tolosa, 10 urte
Jokin Tolosa	Amezketia, 10 urte
Aitor Sagastume	Tolosa, 10 urte
Andrea Rñion	Tolosa, 10 urte
Andoni Elustondo	Tolosa, 10 urte
Pablo Martin	Tolosa, 10 urte
Irene Arin	Tolosa, 10 urte
Rosa Milagro	Altzo, 10 urte
Ion Cortajarena	Tolosa, 10 urte
Ane Gurrutxaga	Tolosa, 11 urte
Nerea Sorondo	Tolosa, 11 urte
Leire Bengoetxea	Tolosa, 11 urte
Leire Padilla	Villabona, 11 urte
Garazi Erbiti	Leitza, 11 urte
Arantxa Urdangarin	Altzo, 11 urte
Carlos Alfredo	Tolosa, 11 urte

Goya harategia (Rondilla); Xirimiri txokolategia, Interfilm, Lizarralde harategia (Errementari); Bilintx liburudenda, Zurbeltz diskak (Arostegieta); Gorrotxategi gozotegia (Plaza Zaharra); Aranburu liburutegia (Solana); Ogi-Berri (Eskolapioen lorategiak); Ogi-Berri, Natural Body, Kimetz, Gorrotxategi dietetika (kale Nagusia); Puro's, Edel liburudenda (Leitza kalea); eta El Bacalao goxokiak (Korreo). Bestalde, argitaratuta ikusteaz gain, datorren astetik aurrera merkatariak parte hartu duten marrazkien erakusketa jarriko dute ikusgai Tolosako Alde Zaharrean.

Estreina marrazki lehiaketa izan da aurtengoa, baina izan duen arrakasta ikusita izango du jarraipena. Beraz, jarraitu eskualdeko paisaiak marrazten hurrerorako prest izan zaitezten!

HEZKUNTZA ▶

Hasi dira Ulik antolaturiko Guraso Eskolak

Uli Mankomunitatea osatzen duten Udalek, hau da, Belauntzak, Leaburu-Txaramak, Gazteluk eta Orexak, Guraso Eskolak antolatu dituzte. Gaur, Gaztelun izango da lehen saioa 17:30etik 19:00etara udaletxean, eta *Garapen psikologikoa haurtzaroan* landuko dute. Bihar, berriz, Belauntzan eta Leaburu-Txaraman izango da saioa; Belauntzan 17:30etik 19:00etara izango da, Kultur Etxean, eta *Arauk eta mugak* izango da landuko duten gaia, eta Leaburu-Txaraman 19:00etatik 20:30era izango da *Gazte Gelan* eta *Garapen psikologikoa nerabezaroan* landuko dute. Informazio gehiagorako deitu Uli mankomunitatera 943 68 22 28 telefono zenbakira.

POLITIKA ▶

BECera joateko autobusa antolatu dute

Tolosaldeko Batasunak larunbatean BECen izango den ekitaldira joateko autobusa antolatu du. Etziraiko eman behar da izena, ohiko lekuetan. Autobusa 15:00etan aterako da, Tolosako Triangulotik.

ALEGIA ▶

Aralar institutuak antolatutako hitzaldia, bihar

Aralar institutuak antolatuta, Aralarko eta San Joaneko ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldia izango da bihar, Kultur Etxean. Patxi Izagirre psikologoak *Heziketa eta heriotza* saioa eskainiko du, 18:00etan.

TOLOSA ▶

Ipuinei buruzko solasaldia Hirukiden

Hirukide ikastetxeak ipuinei buruzko solasaldia antolatu du gaur. *Nola aukeratu ipuina? nola irakurri? nola kontatu?* izenburupean, Galtzagorri elkarreko Yolanda Arrieta izango da hizlari. 15:15ean hasiko da saioa, Hirukide Jesuitinetan.

TOLOSA ▶ AZPIEGITURAK



Berazubi kiroldegi zaharra botatzeko lanak hasi dituzte

N. Lataburu ▶ Egun gutxi barru Berazubi kiroldegia Tolosako historiaren zati izatera pasatuko da; izan ere, hau botatzeko lanak hasi dituzte dagoeneko. Gune honetan etxebizitzak eraikiko dituz-

te, oraindik lanen epea eta egokitzea zehaztu gabe dagoelarik. Irailan inauguratu zuten Usabal kirol eta aisialdi guneak hartu du, honenbestez, kiroldegi zaharraren lekua. NOELIA LATABURU

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

«Liga lortzeko aukerak» ditu Ibarrek lehen itzulia amaituta

Seigarren dira sailkapenean; hilaren 28an Logroñoren aurka hasiko dute 2. itzulia

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan lehen itzuliko azken partida jokatu zen areto futboleko Nazionalako Lehen Mailan eta atsedean jardunaldia egokitu zitzaion Ibarriari, iaz bezalaxe. «Egutegi hau oso arriskutsua da» taldearentzat, Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak jakitera eman duenaren arabera. Izan ere, datorren asteburuan ere Errege Kopako neurketak izango dira eta, beraz, Ibarrek ez du partidarik jokatu hila 28ra arte; hau da, hilabete osoan partida bakarria izango dute ibarrek. Etxetik kanpo izango da, gainera, eta Logroño taldea izango dute aurkari. Sailkapeneko hirugarren postuan dira errioxarrak, 2 puntu gehiagorekin, eta garaipena eskuratu ahal izateko gogor lehiatu beharko dute Ibarrek. Ligako erritmoa galtzeko «arriskuaren mamua» ere badute Cesar Rocaren mutilek, baina «gogoz» ari dira entrenatzen horrelakorik gerta ez dadin.

Bien bitartean, eta denboraldi erdia egin dutenean, «balantze baikorra» egin dute. Sailkapen orokorra bi zatitan banatu da: batetik, lehen zazpi sailkatuak, elkarren arteko alde oso murrizta delarik —seigarren dira Ibarrek mutilak— eta, bestetik, lehen postuetara igotzeko zailagoa dutenen talde txoa. Ligako titulua, beraz, lehen taldea osatzen dutenen artean lehiatuko da. Zeresan handia du Ibarrek, esku-eskura baitu 2005-06 denboraldiko onena izateko.

Maldan gora eman zion hasiera Ibarrek denboraldiari, sailkapeneko azkenak izatera ere heldu zirenez. Haatik, taldearen kalitateak eta hasiera traketaren ostean osatutako partida honen ondorioz, euren helburuak erabat aldatu ziren: jaitsiera ekiditea zen hasieran eta, orain, lehen postuetan egonik titulua lortzeko borrokan mantentzea. Gainera, zale-tuek ilusioa berreskuratu eta leporaino betetzen dituzte larunbatero Belabietako kiroldegiko harmailak. «Giroa ere bi-



Ibarrek jokalaririk. I. TERRADILLOS

ZALETUAK

Hasiera txarra izan zuen taldeak, baina zale-tuen arnasa ezinbestekoa izan da egoerari buelta eman ahal izateko

kaina izaten da eta jokalarien eta zale-tuen arteko harremanak asko laguntzen du garaipenak lortzerako orduan». Tobiasek Ibarrek etxean jokatu-tako azken neurketa jarri du adibidetzat: «Epaileek zale-tuek zituzten tronpetak eta bestelako gailuak isilarazi zituzten, ilegalak izan arren».

Behekoen gol zaparrada

Beheko mailakoek ez zuten atsedetik izan asteburuan eta fin aritu ziren biak ere. *Txubelen* jubenilek Getxon jokatu zuten eta 1 eta 7koarekin nagusitu ziren erakustaldi bikaina eskainiz. Talde aurkariak ez zuen maila ona erakutsi eta «erraza» izan zuten garaipena ibarrek. Honenbestez, bigarren kokatu dira sailkapenean, Logroño taldearekin berdinduta.

Kadeteek ere berea egin zuten, eta 5 eta 12ko emaitzarekin irabazi zioten Errenteriako taldeari. Gazteek maisutasun handia erakutsi zuten eta lehen postuan daude, bigarreneko alde nabarmenarekin.

TOLOSA ▶

Tolosa-Ibarra, Gipuzkoako taldekako xake Ligan primeran

3 eta 1 irabazi zion Villabonari; hirugarren mailakoak, berriz, berdindu egin zuten

ERREDAKZIOA

Aurreko larunbatean Gipuzkoako taldekako xake Liga hasi zen. Ligako maila gorenean Tolosa-Ibarra A taldeak 3 eta 1eko emaitzarekin irabazi zion Villabonari. Mujikak eta Barojak irabazi zuten, eta Etxeberriak eta Etxeberriak, berriz, berdindu.

Bestalde, aurten ere elkar-teak bigarren talde bat ateratu du Ligan, Hirugarren Mailan. Arrasateraino joan ziren hauek jokatzera, San Andres taldearen aurka. Hasi berriak izan arren oso poliki aritu ziren eta berdindu egin zuten. Moreau kapitainak eta Gonzalezek irabazi zituzten puntuak.

TOLOSA ▶

Zine-klub saio berri bat biharkoan, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Ostegunero legez, zine-klubak saio berri bat eskainiko du bihar, 21:30ean, Kultur Etxeko aretoan. Xu Jinglei zuzendariaren *Letter from an unknown woman* filma izango da ikusgai. Filma honek Zuzendari Onenari Zilarrezko Maskorra jaso zuen 2004an. Lana 1948an kokatzen da, Pekinen. Idazle txinatar bat da protagonista, gerra ostean, etxera doana; bertan, gutunak itxaroten ditu. Horien artean sekretuan bizitako maitasuna jakinarzten dion emakume batena dago.

«Argumentu esentzialista, akotxe gutxi eta istorio oso sinplea du». Gisa honetara definitzen zuten jakitunek filma. «Bere eragin kortasuna xehatasun txikietan dago; arrosa batean, musu iheskor batean, ezustean topo egitean». Emakumeari omenaldia egin nahi dio filmak.

ANOETA ▶ UDALA

Salbuespenak eta hobariak finkatzeko Udalaren bandoak

Trakzio mekanikoko ibilgailuen eta ondasun higiezin zergetan zehaztu dituzte

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak zenbait bando argitaratu ditu, onartu berri diren aurtengo ordenantzen inguruan, zergen ordainketa salbuesteko eta hobariak lortzeko eskaerak egiteko. Hiru bando atera ditu. Bata, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuen inguruan; bestea, traktoreen, atoen, erdiatuen eta makinariaren inguruan; eta azkena, familia ugarietako ondasun higiezin buruzkoa.

2006ko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainketa salbuesteko, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuei dagokionez, otsailaren 15a arte dute eskaera egiteko epea. Aurkeztu behar duten dokumentazioa ondokoa da: ibilgailuen zirkulazio baimenaren fo-

tokopia; ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia eta Gizartekintzak edo bere ordez diharduen erakunde edo agintari administratiboaluzatutako ziurtagiri originalaren fotokopia. Egoera berean jarraitzen duen bitartean, ez du beharrezkoa izango eskaera berriro egitea. Matrikula berria duten ibilgailuei dagokionez, bi hilabeteko epea dago Trafikoko Buruzagitzan alta ematen zaienetik hasita, indarrean den ekitaldirako salbuespena eskatzeko.

Zerga berdinari dagokionez, eta traktoreen, atoen, erdiatuen eta makinariaren kasuan, otsailaren 15a arte dute epea ere salbuesteko eskaera egiteko. Aurrekoek bezala, ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia eta ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu be-

har dituzte. Horretaz gain, aurkeztu behar duten dokumentazioa ondokoa da: nekazaritzako makineria inskribatzeko kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen departamenduko nekazaritzako makineriaren erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua. Ibilgailu hauen jabeek ez dute berriro eskaerarik egin behar egoera berean dagoen bitartean. Eta matrikula berria daukatenean ere bi hilabeteko epea izango dute Trafikoko Buruzagitzan alta ematen zaienetik hasita.

Ondasun higiezin buruzko zergari dagokionez, Udalak ere bando bidez zehaztu ditu familia ugarietako hobariak: hiru seme-alabeko familia ugariarentzat, %50eko hobaria, 35 euroko mugarekin; 4 seme-al-

beko familia ugariarentzat, %60ko hobaria, 42 euroko mugarekin; eta 5 seme-alabeko familia ugariarentzat, %90eko hobaria, 63 euroko mugarekin. Eskaera epea otsailaren 28a arte izango da eta ondoko dokumentazioa auzketu beharko dute: familia ugariaren liburuaren fotokopia eta 2005eko ekitaldiko ondasun higiezin zergaren ordainagiria. Eskaera egiteko bete beharreko baldintzak ondokoak dira: familia ugariaren titularrak etxebizitza hori bakarrik jabetzan izatea; familiako kide ezberdinak bertan erroldatuak egotea; eta familia ugariaren kartila indarrean izatea.

Zergen inguruko salbuespen eta hobarien eskaerei buruzko informazio gehiago eskuratu nahi duenak udaletxera jo dezake, han emango baituzkiote azalpenak.

VILLABONA ▶

Gipuzkoako Urak S.A.k kudeatzen du herriko ura

Urte honen hasieratik, Gipuzkoako Urak S.A. enpresak darama Villabonako ur guztiaren kudeaketa, Udalarekin akordio batera iritsi ondoren. Gipuzkoako beste udalari batzuetan ere zerbitzu hau ematen du enpresa horrek. Urarekin zerikusia duten gestioentzako 902 30 22 22 telefonora deitu behar da.

ANOETA ▶

Podologoaren bisita izango dute Alkartasunan

Naiara Ortega podologoaren bisita izango dute Alkartasuna Biltokian bihar, 14:30etik aurrera. Alkartasuneko bazkideei zein edozein herritarrei irekita dago podologoaren kontsulta. Bestalde, Alkartasunetik gogoraz dute kuotaren kobraketarekin jarraitzen dutela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134
▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228
▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.
▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leizaran autobus.: 948 221015
▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016
Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016
▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

VILLABONA ▶

Duina plataformaren batzarra, gaur, Gaztetxean

ERREDAKZIOA

Duina plataformak batzarra egingo du gaur Gaztetxean, 19:30ean. Eskualdeko bilera bakarra izango da. «Herrietako eragileen elkar ezagutza eta borrorak bultzatzen dituen koordinadora gara», dio Duina plataformak bere webgunean, www.duinakoord.org. «Herriei erraztasunak eskaintzeaz gain, haien arteko komunikazioa indartuko dugu». Era berean, «herrietako borroken pantaila nazionala» izatea du helburu. Lan mundua, etxebizitza, irakaskuntza eta prestazioak jorratzen dituzte.

VILLABONA ▶ MENDIA

Iparraldean egingo dute iganderako Aizkardikoez antolatutako irteera

Luhosoa-Baigura-Orzaize ibilbidea burutuko dute mendizaleek

ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi Mendi Elkartek beste mendi irteera bat antolatu du igande honetarako, hilak 22. Luhosoa-Baigura-Orzaize ibilaldia burutuko dute, Lapurdi eta Nafarroa Beherea arteko mugan.

Luhosoa herritik ekingo dionte bideari eta Xantxoko lepora (445 metro) igoko dira. Aldapa handi bat igoz Erregeluko (865m.) gainara helduko dira. Bertatik Baigurako Mendigunearen gailurrak zeharkatuko dituzte. Baigura (897), Laina (869) eta Haltzamendi (818) gainetatik igaroko dira, haien



Iparla eta Bidarrai ikusteko aukera izango dute mendizaleek. HITZA

arteko altuera-alde txikiak gaindituz. Azkeneko tontorretik Orzaize herrira jaitsiko dira, eta bertan amaituko dute ibilbidea.

Bost orduko txangoa izango da gutxi gorabehera eta mendizaleek aukera izango dute hainbat paisaia eder ikusteko: Errobiko bailara (Bidarrai,

Iparla, Artzamendi...), Landak, Pirinioak (Orhi, Abodi...) eta ezagunak diren hainbat gailur (Larrun, Ernio...).

Izena emateko 943 69 44 58ra deitu behar da edo elkartera jo. Azken eguna horretarako bihar da. Ibilaldiaren irteera ordua 08:00etan izango da, Olaederra kiroldegitik.



Osteguna 19 • 18:30ean
INAUGURAZIOA
"lunch" ikekia
K/Berria • Villabona
943 69 38 31

BERASTEGI ▶ SAN ANTON

Beste behin, herriko animalia askok urte ona igaroko dute

80 bat lagun elkartu dira San Anton baselizan animaliei nahiz elikagaiei apaizak beharrezko bedeinkapena emateko

NEREA URBIZU

Iritsi da San Anton eguna eta, berarekin, Berastegin bereziki ospatzen duten eguna. Beste behin, atzokoan hainbat herritar San Anton baselizan elkar-tu egin ziren 10:00etarako, elikagaiek eskutan batzuk, animaliak aldamenean beste batzuk, apaizaren bedeinkapena jaso zezaten, usadioak dioen moduan, urte ona igarotzen omen baitu animaliak modu honetan.

Hainbat animalia ikusi ahal izan ziren: arruntenetatik hasita, zelebrea ikustera arte. Izan ere, bost txakur, katu bat, bost urte inguruko poney bat eta oilar baten baten artean azkonarra ere ikusi ahal izan baitzuten berastegiarrek. Horrek ere, besteek bezala bedeinkapena jaso zuen, noski.

Meza entzun ostean —ermitan ez ziren joandako guztiak sartzen—, arkupean prestatutako mahaitxoan jatekoak eta edatekoak atera zituzten, ha-



San Anton baselizan emandako hamaiketakoa. N. URBIZU

maiketako atsegina bat egiteko, eta haize hotzaz zertxobait ahazteko. Han agertutako 17 haur inguruk otarteko txikia hartu eta eskolara buelta egin zuten. Han bildutako 80 bat la-

gunek etxerako itzulia 11:00ak aldera egin zuten baselizatik.

Hurrengo San Sebastian eguna ere modu berezian ospatuko dute, han egin ohi duten moduan.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen bilera

Gaur gauean elkartuko dira Kultur Etxean, urtearen balantzea egiteko, besteak beste

N. URBIZU

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak urteko batzar nagusia egingo du gaur, 21:00etan, Kultur Etxean. 2005. urtean elkarteak izan duen jardunaren balantzea egingo dute, besteak beste. Iaz egindako ekitaldi nahiz kantu emanaldien berri emango dute, eta Kultur Elkarteak epe horretan izan dituen sarrerei eta gastuei buruz ere hitz egingo dute.

Bestalde, aurten elkarteko batzordetik bi lagun aterako dira eta, horren ondorioz, bazkideek beste bi kide aukeratu beharko dituzte, bozketa bidez.

Batzarrari amaiera emateko, 2006. urteari begira Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek dituen egitasmen berri emango dute: helburuak, xedeak, ateraldiren bat...

Kultur elkartearen lana

Txintxarri abesbatza sortu zenetik (1960. urtean), izaera juridiko baten beharrez ohartuta, Kultur Elkarte sortzea erabaki zuten. «Musika eta kultura sustatzeko eta izaera

autonomoa izateko asmoz» sortu zen Txintxarri Abesbatza Elkarte 1991. urtean. Urte berean haur abesbatza ere sortu zen, eta geroztik helduen abesbatzaren harrobia da. Bi abesbatza eta bi zuzendari ditu elkarteak, eta Kultur Etxean zein parrokiaren aretoetan egiten dituzte kantu pres-takizunak eta entseguak.

Gaur egun, 130 bazkide ditu elkarte honek. Kultur elkarteak Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek urtean zehar egiten dituzten kantu emanaldi eta ekitaldi guztiak kudeatzen ditu, beste hainbat lanen artean.

Gauzak honela, elkarteko bazkideei batzar horretara joateko dei egin diete eta, bide batez, elkarteko bazkide izan nahi izanez gero, koruko kidearen batekin harremanetan jarri edota Kultur Etxeko postontzian eskaera uztea besterik ez da egin behar. Bazkide txartela edukitzeko 10 euro ordaindu behar dira urtean.

Txintxarri abesbatzaren hurrengo emanaldia Santa Agenda bezperan (otsailak 4) izango dela gogoratu dute, herrian bertan abesten aterako baitira, aurrerago zehaztuko duten orduan.

Aurrezki Gorakorra EUSKADIKO KUTXA

%5,00*

%3,00

%2,75

%2,50

%2,25

Bide berria zure aurrezkiarentzat, gora eta gora egin dezaten

Bezero bakoitzeko gehienez 30.000 euro • Lehen hiru urteetan dirua ateratzen bada, atera da %1 murriztuko da, eta ordea gainerako urteetan • Eskudrutan edo berri erositako batzuen txakoen bidez egindako inbertsioen kopuruko diru-sarritarako balio ez du balio • Interesak gordinen mugagabeak diren bitartean, diru urterekin, gabe Kapital Hoberenaren errendimenduetatik harikako diru interesak eta %1,10eko ataldira irango dute. 1.000.000.000 gordinen %1,00eko gainera aplikatuko da. %1,10eko ataldira irazi eta hurrengo urteko gordinen %1,00eko gainera aplikatuko da. 30.000.000.000 gordinen %1,00eko gainera irazi eta hurrengo urteko gordinen %1,00eko gainera aplikatuko da. • Eusko Kudeak konpromisoa hartzen du, **EBAN** baimelaguntzaren bidez, 15 eguneko apez-antzeko, nahiz badi, ataldira bertan behar izateko • Enpresa hau EAEko eta nafarrekola da

* %4,00 + %1,00 mugagabearen artean zuten gordailuei aplikatuko da.

% 2,92

5 URTERAKO GORDAILUA
3.000 EUROTIK GORA
ERABILGARRIA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Sustraiak: «Sutearekin ez dugu zerikusirik, ekintzak ez baitu kutsu politikorik»

Bere «aurkako akusazioen harira» erantzun du Sustraiak herri plataformak; gaur ezohiko batzarrera deitu du Udalak eta ondoren konzentrazio isila egingo dute



Sustraiak herri plataformak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo. IÑIGO TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Larunbatean Tolosako altzari denda bati su eman eta horren harira «Eduarne Arbelegi Belauntzako alkatea eta Etxebeste bertako jabearen adierazpenak erantzun nahian», Belauntzako Sustraiak herri plataformak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo.

Lehenengo eta behin, Sustraiak plataformak ezbeharrarekin «zerikusirik ez» zuela adierazi zuten. «Taldea politiko bezala ez dugu horrelakoetan ez parte hartzen ez eta konpar-

atzen ere, are gutxiago Euskal Herrian bizi dugun une politiko garrantzitsu hauetan», gaineratu zuten.

Bigarrenez, «onartezinatzat» jo dituzte haien aurka egin diren akusazioak. «Beraiek jakin badakite ez Belauntzako Sustraiak ez eta Ezker Abertzaleak ez dutela zerikusirik sutearekin», baieztatu zuen taldeak. Plataformako kideen esanetan, «argi daukagu ekintza honek ez duela kutsu politikorik». Sustraiak-en ustez, gertatutakoaren azalpena «beraien baitan bilatu beharko litzateke, be-

raien baitan baitago». Duela urte pare bat Etxebesteren biltegiak lehen aldiz su eman ziotenean, oraingoan jasotako «akusazio berberak» entzun behar izan zituztela salatu du plataformak. Gertakariaren harira hainbat galdera plazaratu ditu Sustraiak-ek: «Oraingo honetan ere lehen bezala gertatuko al zaigu? Non daude aurreko gertakariaren ikerketak? Zergatik behin eta berriro ikerketaren ondorioak argitaratu ematea eskatu badugu eta aktetan jasota badaude, inoiz ez zaigu ezer esan?».

rrekoan gertatu zena gerta ez dadin». Izan ere, aurreko ikerketen taldean parte-hartzea debekatu izana salatu dute.

Neurriak hartuko dituztela adierazi dute eta, lehenik eta behin, dendako jabe den Etxebeste jauna tribunaletara eramango dute, «ondo asko baitakite Etxebestek, Arbelegik... gertatu dena ez dela ekintza politikoa eta beste zerbaitek badagoela».

Gaur, ezohiko batzarra

Belauntzako Udalak, bien bitartean, ezohiko batzarrera deitu du gaur, 20:30ean, udaltxean. Landuko den gai zerrenda honakoa izango da. Udalak jakitera eman duenaren arabera: Carmen Olano Belauntzako udalerriko bizilagunaren dendak bi urteren barruan jasan duen bigarren eraso dela eta, Erroizpe eta PNV-EA udaleko taldeek aurkeztu duten mozioaren onarpen proposamena. Mozio honetan onartzea proposatuko diren hiru puntuak hurrengo hauek dira: «Gertaera hauen salaketa argi eta garbia egiten du Belauntzako Udalak eta Udal honek Etxebeste-Olano familiari babesa adierazten dio, jasaten ari den jazarpen egoera hauek behin betikoz bukatu daitezela eskatzen dugularik». Bestalde, jazo-tako gertaeren aurrean «Belauntzako Sustraiak taldeari bere posizionamendua» eskatzen dio Udalak. Amaizteko, pleno honen ondoren plazan konzentrazio isil baterako deia egin du, ondorengo leloarekin: *Elkartasuna familiarekin. Hurrengoia noiz? Hurrengoia noiz? Noiz arte?*

Gertakaria iragan larunbatean jazo zen Tolosako Donostia hiribideko 7. pabilioian dagoen Carmen Olano altzari dendan. Su eman bai, baina ez zuen kalte handirik izan. Bi urteren buruan, bigarren aldiz eman diote su aipatu dendari. Ertzaintza gertaera ikertzen ari da 2004ko otsailetik, hau da, lehen aldiz su eman ziotenetik. Hartan pabilioiko 3 solairuak «erabat kiskalita» geratu ziren.

KONZENTRAZIOA

Ezohiko batzarraren ostean, konzentrazioa deitu du Udalak familiari elkartzuna adierazteko

IKERKETA

Ikerketa egin dadin interesatuena Sustraiak dela diote; «errealia eta muinera iritsiko dena» izatea eskatu dute

NEURRIAK

Egindako akusazioak direla-eta kaltetutako dendako jabea tribunaletara eramango dutela esan dute

Bestalde, «jazotako gertakari-errez baliatzeak eta errentagarritasun politikoa atera nahi izateak» akusatu ditu plazaratzen. Halaber, «datorren urteko hauteskundeak prestatzen hasi ote diren edo alkatetza eskuratu zutenetik egin dituzten gehiegikeriak ezkutatu nahi dituzten» jarri du zalantzan, besteak beste, «tabernaren itxiera, kaleratze bidegabeak, lagunen arteko politika; ustelkeria nonahi».

Ikerketa egin dadin interesatuena plataformako kideak direla azpimarratu zuten prentsaurrekoan, «errela eta muinera iritsiko den ikerketa, au-

hilberria ▶



Margarita Ugartemendia Apaolaza andrea

(Juan Antonio Dorrnsororen alarguna)

Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Seme-alabak: Juan Antonio eta Ana M^a Eizmendi, Jesus M^a eta Olga Artola, Lourdes eta Andoni Lizeaga; bilobak: Ane, Xabier, Olatz, Miren, Irene eta Jon; ahizpa: Juanita; ezkon anai-arrebak: Luis Ramirez eta Ramona Etxezarreta; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezte GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, TOLOSAKO SAN FRANTZISKOKO parrokoi elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

hilbidea ▶ Zuberua 2, 2
oharra ▶ gorpuzt beila Tolosako Funeraria Vascongada beilatokian egongo da

TOLOSAN, 2006ko urtarrilaren 18an



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

AIZKORA ▶



Jokoan aurkari izan ohi diren arren, bestelakoan lankidetzaz nagusi da, udako saioetan batez ere —irudian, Alegian, Rekondo eta Otaegi—. J. ASTIBIA

Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketan, gazteen sailean, ari dira Otaegi eta Rekondo

Igandean Donezteben jokatu zuten, lagun banarekin, elkarren aurka, ligaxkako bigarren saioan: Otaegik eskuratu ditu puntuak, Larretxea III.a lagun duela

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo igandean jokatu zuten Donezteben Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketaren barrenean ligaxkako bigarren saioa. Helduen mailako saioa ez ezik, gazteena ere jokatu zuten, eta protagonistak Joseba Otaegi zizurkildarra, Garikoitz Larretxea lagun zuela, eta Jon Rekondo leitzarra, Rodriguez II.a lagun zuela, izan ziren.

Horrela, bada, ligaxkako bigarren saioa Otaegik eta Larretxea III.ak bereganatu zuten, egunean egin beharreko lanak orotara 17 minutu eta 36 segundotan egin eta gero. Rekondok eta Rodriguezek minutu bat gehiago behar izan zuten lanak bukatzeko. Hiru lan motatan aritu ziren aizkolariek. Aurrena, bikotea bikotearen ebaki zuten txanda libreen: lan honetan zizurkildarren bikoia atera zen garaile, minutu bat eta 28 segundoko denborarekin, beste bikoteak baino 6

segundo gutxiago behar izan zituztelarik.

Bigarren saioa 45 ontzako enborrekin zuten eginbeharra, banaka, bikote aurkariko kideen aurka, eta bakoitzak bi norgehiagoka jokatu zituen. Honetakoan, Rekondok eta Rodriguezek irabazi zituzten bi saioak: aurrena, Otaegik eta Rodriguez espainiarrak jokatu zuten elkarren aurka, eta Rodriguezek 55 segundotan ebaki zuten enborra, zizurkildarrak minutu eta 2 segundotan; hurrena, Rekondo eta Larretxearen txanda izan zen, honetakoan leitzarrak irabazi zuten 49 segundoko denborarekin, arraioztarrak, berriz, 55 segundoko behar izan zituen; Rodriguezen eta Larretxearen artekoa etorri zen gero, hau ere aurrenekoak bereganatu zuten, 45 ontzako 56 segundotan, besteak baino 18 segundo lehenagotik ebakiz; sail honetako azken lehia Jon Rekondok eta Joseba Otaegik jokatu zuten izan zen, honetakoan ere leitzarrak bota zuten lehendabizi,

41 segundotan, zizurkildarrak baino 6 segundo lehenago. Horrela, beraz, egin beharreko bina saioak irabazita, Rekondorentzat eta Rodriguezentzat izan zen atal hau. Buruz-buruko honetan, lan polita egin zuten Rodriguezek saioko puntuak lortuta, beti ere 16 urte besterik ez dituela kontuan hartuz, eta batez ere bere lurraldean, Segovian (Espainia) pinuarekin aritzen direla aizkora, askoz ere material bigunagoa, ez bairrik gabe.

Ordurarteko denborak kontuan hartuta, Rekondo eta Rodriguez zeuden aurretik txapelketako jardunaldi honetan. Eta, beraz, erabakiorra suertatu zen jaialdiko azken saioa. Bikotea bikotearen aurka, txanda libreen hau ere, saio luzea zuten egitekoa honetakoan: 45na eta 60na ontzako bina enbor eta bina kanaerdiko. Eta Otaegiren eginahala apartekoa izan zen saioan, lanak 10 minutu eta 3 segundotan bukatu baitzituzten berak eta Larretxeak, Rekondok eta Rodriguezek baino

minutu eta 16 segundo agudogo. Azken hauek azken 60 ontzakoan, espala tikiogia hartuta, epaia itxi egin zuten eta ezin bukatuz aritu zirela aitatu beharra dago. Kontuak kontu, arestian esan bezala erabakigarria suertatu zen saio hau, lehiari buelta ematea lortu eta garaipena eskuratu baitzuten Otaegik eta Larretxeak, eta txapelketako bigarren saio honetan puntuak beraiek eskuratu zuten.

Zizurkildarra gustura zegoen egindakoarekin: «Aurreko galdutakoan, ezpala tikiogia hartuta, epaia itxi egin zuten eta ezin bukatuz aritu zirela aitatu beharra dago. Kontuak kontu, arestian esan bezala erabakigarria suertatu zen saio hau, lehiari buelta ematea lortu eta garaipena eskuratu baitzuten Otaegik eta Larretxeak, eta txapelketako bigarren saio honetan puntuak beraiek eskuratu zuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Haur zaintzailea. Neska euskaldun bat behar dut haur bat zaindu eta ebeko lanak egiteko. Deitu 679 33 32 45era.

gu; igandean honetan gertatzen dena ikusi behar, ordea, horretarako», azaldu zuten berak itxaropen printza batekin.

Zentzu honetan mintzatu zen Jon Rekondo bera ere. Izan ere, hauek txapelketako lehen jardunaldia zuten pasa den igandeko eta galdu egin zuten.

Igandean, Lakuntzan

Orain, datorrenean dute bigarrena, hain justu Mutrikuko Mugertza anaien aurka, Lakuntzan izanen da hori, 18:00etan, eta Rekondo eta Rodriguez irabazi beharrean aurkitzen dira aurrera jarraitu nahi badute; puntu bat eskuratu lukete eta, horrela, hiru bikoteak berdin geldituko lirake. «Mugertzarren aurkako hori lan txarra dugu, hauek oso ongi hartzen baitute elkar eta gogorrek dira oso», zioen leitzarrak hurrengo saioari begira jarrita: «Binakako lanean oso garrantzitsua da elkar ongi hartzea eta hauek anaiak dira eta elkarrekin prestatzen dira. Gogorra», nabarmendu zuen. Alde horretatik hauek justu samarrean daudela adierazi zuen. «Segoviatik txapelketako saioetara etortzea bakarra ere bada meritua, prestataketara etorri beharrik gabe. Guri hori falta zaigu konparaziora», zehaztuz. Edozein moduz, «irabazi beharrean gaude, eta alde handiarekin, gainera», adierazi zuen.

Txapelketa honetan aitatutako hiru bikote hauek ari dira parte hartzen. Datorren igandean da ligaxkako hirugarren saioa. Saio bakoitzeko puntu emateko, jardunaldiko hiru ariketetan egindako denborak hartzen dituzte kontuan. Finalerdietara bi bikote igaroko dira. Berdinketarik balego, ariketa bakoitzean lortutako puntuak erabakiko lukete: bi puntu 60 ontzakoan, puntu bana 45 ontzako bakoitzeko eta bost puntu saio luzean.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Urtarrila maldan gora egiten den hilabetea omen da. Nola ari zaizu egiten zuri?: Oso gogorra? Gogorra? Ohikoa? Arina? Oso arina?

Eztabaida. Laster iritsiko dira Inauteriak, eta dagoeneko moztaroen pentsatzen hasiak izanen dira batzuk. Zertaz moztortzea pentsatu duzu? Zein uste duzu litzatekeela aurtengorako moztorrik egokiena?

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen urteko batzar nagusia. 21:00etan, Kultur Etxean.

Alegia. Aitor Mendiluzerekin eta Amaia Agirrerekin bertso afaria larunbatean, 21:00etan, Intxurre elkartearen. Izen-ematea, 20 eurotan, Kultur Etxean, Intxurren eta ohiko tabernetan.

Berrobi. Kuxaren laguntzarekin, eskulanak eta lore sendagaien ikastaroak antolatu nahi ditu Udalak Etxolan. Izen-ematea, 943 32 66 66an (Miguel Arrieta) edo 943 68 32 94an (udalabxia).

Tolosa. Arrantza egiteko lizentziak bihar tramitatuko dituzte Tolosako Arrantzaleen egoitzan (Soldadu kalea), 19:00etatik 20:30era.

Tolosa. Peñascal fundazioak soldadura ikastaroa antolatu du langileentzako etengabeko formazio planen barruan, doan. Informazioa, 943 67 61 61an.

Villabona. Duina plataformaren batzarra. 19:30ean, Gaztebxean.

HITZALDIAK

Tolosa. *Nola aukeratu ipuina?, nola irakurri?, nola kontatu?* izeneko hitzaldia, Galtzagorri elkarte kide Yolanda Arrietaren eskutik. 15:15ean, Hirukide Jesuitinetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre Irratia

(107.5 FM - 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztetsarek prestatzen duen saioa, Arroza Irrati Zentroaren eskutik.

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Parkeak eta plazak

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Janirek, Eneritzek, Ainhoak, Laidak eta Maddik egindako marrazkiak dira hauexek, Ibarraz, Leaburuz eta Tolosaz



IBARRA ▶

Janire (5 urte, Ibarra).

«Kaixo, Janire naiz, Ibarra bizi naiz eta 5 urte ditut. Nire etxe ondoko parkea da hau».



LEABURU ▶

Eneritz Ugartemendia (6 urte, Leaburu).

«Leaburuko plazan paseatzen nabil aita, ama, Oier eta Lurrekin», esan digu gure lagun Eneritzek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Unax Lizarraga Calvo (Zizurkil).
Gaur bi urte. Ondu pasa eta muxu pila bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Beñat Oiz Calahorra. Gaur 6 urte. Zorionak Laida, amaboa eta aitaboren partetik.

HITZA,
zorian agurren tartea

HITZAren egoitzelara: Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaltzeko bulegoa LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



TOLOSA ▶

Ainhoa Mendiluze Ormaetxea (8 urte, Tolosa).

«Nire herria, nire ustez, oso polita da. Tolosako Plaza Zaharra marraztu dut», dio Ainhoak bere lanari buruz.



TOLOSA ▶

Laida Mendiluze Ormaetxea (5 urte, Tolosa).

Gure lagun Laidak bere herriko parkea aukeratu du: «Tolosako parkea da. Askok gustatzen zait hor jolastea».



TOLOSA ▶

Maddi Pagola (5 urte, Tolosa).

«Orain, bidegorriarekin, politagoa dago Tolosa. Aita, ama, anaia eta ni goaz bizikletan bidegorrian», azaldu digu Maddik.